

TXIKIAREN HANDITASUNA LITERATURAN

MARIASUN LANDA



erein

Txikiaren handitasuna literaturan

Mariasun Landa

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespeneko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2018ko urria

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko argazkiak:

Marga Otaegi

© Mariasun Landa

© EREIN. Donostia 2018

ISBN: 978-84-9109-305-3

L. G.: SS-1.125/2018

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Txikiaren handitasuna literaturan
Mariasun Landa

Argazkiak:
Marga Otaegi

– AURKIBIDEA –

1. Hitzaurrea	9
2. Liburutegiak gonbidatzen zaitu	13
3. Irakurketa literarioaz	17
4. Printze txikia: Hautzaroaren nostalgia	25
5. Irakurtzea eta idaztea, ontzi komunikatuak	29
6. Leioa eta gela	37
7. Nire bestiario pertsonala	41
8. Robinson deskonektatua	53
9. Etiketarik gabeko literatura	59
10. Eta zu, zer moduz zaude?	65
11. Neskatoen haserrea	69
12. Azeituna eta txotxa	79
13. Zientzia eta literaturaren mugen arteko espazioak	83
14. Txanogorritxoren inozentziaz	95
15. Umorea haur eta gazte literaturan: Ohar batzuk	99
16. Asun Balzola gure artean	113
17. Txikiaren handitasuna	119
18. Bigarren sexua	133
19. Emozioa eta egilearen barne-mundua HGLan	139
20. Baldin eta azterketa-bezpera egun batez...	149
21. Autobiografiaz	153
22. Literatur tailerra ikasgelan	157

HITZAURREA

Ezaguna da Erpurotxo basoan barrena abiatu zenean harri koxkorak botaz joan zela, etxera itzuli beharko balu erreferentziaren bat izateko. Azkarra eta zuhurra mutikoa! Baina ez zion askotarako balio izan, patuak beretzat gordea zuenarekin bizi behar izan baitzuen: bigarrenez abandonatu zutenean, hegaztiak jan zituzten ogi apurrak. Hala, bada, arriskuei aurre egin behar izan zien, arazoak konpondu, arriskatu eta bere burua gainditu, jakin gabe nola amaituko zen bera protagonistatzat zeukan abentura hura. Kontua ondo bukatu zen, eta nahiago genuke besteok ere gauza bera esaterik bagenu. Izan ere, aldeak alde, denok utzi gaituzte abandonatuta geure aukera pertsonala kontsideratzen dugun baso horretan. Nire kasuan, abentura literarioaren basoan, hala idazle nola irakasle gisa.

Berrogei urte baino gehiago dira nire bizitzaren parte handi bat literaturaren jirabiran dabilela. Idaztea beti izan nuen gustuko eta idazle izatearekin egiten nuen amets. Gaztelaniaz hasieran, frantsesez geroxeago, eta euskaraz beranduago. Neure bizitzaren bizkarrezurra izan da idazketa, neurri handi batean. Irakaskuntza, bestalde, ogibidea baino zerbait gehiago izan da niretzat. Komunikazio eta transmisio-iturria, neure errealitatea bete eta aberastu duena. Bi alderdi horiek beti konparatu izan ditut plazerez eragiten nien bizikleta baten pedalekin: literatura praktikatzea eta irakastea, testuak ulertzea eta ekoiztea. Hezkuntza-maila ugaritan

jardun dut, azken 23 urteetan Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean.

Erpurutxok zuhurtasun handiz bidean botatzen zituen harri koxkorrek nire kasuan folioaren traza dute, solasaldiarena, artikulu edo hitzaldiarena, eta han-hemenka barreiatu dira, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan 70eko hamarkadan argitaratzen hasi nintzenetik. Aztarna horiek bidean zehar osatutako arrasto-sail bezala interpretatu nahi nituzke orain, idazle eta irakaslearen bideak lotuko lituzkeen Ariadnaren hari partikular gisa, basoaren sarritasunak, memoriak, denborak batzuetan dena ezkututzen badute ere. Ohartu naiz, urteetan zehar, eta testuei galbahe osasungarria pasatu ostean, badirela maiz agertzen diren gaiak, egile eta obra erreferentziakoak, pare bat konbikzio ia errepikakor. Eta baita horiek konpartitzeko desira ere.

Bilketa-lana egiteko gogoia dago liburu honen oinarrian. Pentsatzen dut, adinarekin, denboraren iragatearekin ezinbestean lotutako beharra dela. Baina egia da interesa erakutsi duten pertsonen eskaerek ere lagundu dutela askotan geroratutako proiektu hau azkenean gauzatzen. Galdetu izan didate bere garaian honetaz edo hartaz eman nuen azalpenaz, gozamenez irakurri zuten artikulu hartaz, berritzailea iruditu zitzaien gai baten inguruko ponentziaz, xehetasunak ahaztuak ditudan hitzaldi hartaz. Horiei guztiei eskertu nahi dizkiet beren ekina eta estimua.

Hala bada, behin eta berriro hartuko ditu liburu honek hizpide zenbait gai, haur eta gazte literatura, irakurketa-esperientzia edo literatur testuen sorkuntza. Baita neure idazle-esperientzia ere, alderdi sortzailetik eta autobiografikotik, neure konpromiso feminista albo batera utzi gabe. Beste artikulu batzuek gai berberei heltzen diete baina modu puntual eta heterogeneoagoan, laburtasunetik.

Egiaz, artikulu hauetako asko beste hizkuntza batzuetan edo bestelako bertsioetan ere aurki daitezke. Oraingoan, ordea, euskaraz eman nahi izan ditut, bihotzaren eta lanbidearen hizkuntzan, eta horregatik zait ezinbestekoa liburua urte luze hauetan ikasle izan ditudanei eskaintzea.

Erpurutxo aipatuz hasi naiz, eta ageriko kontu bat oroituz amaitu nahi nuke. Anai-arrebetan txikiena izanik, giza-garapen pertsonalaren inguruko istorio handi baten protagonista izan zen mutikoa. Haur literatura




ere txikitzat hartua da, baina esperientzia literarioaren oinarri funtsezkoa da; txikia da halaber gure herria eta gure hizkuntza, gutxiengoarena eta gutxitua. Horregatik egon behar zuen adjektibo honek izenburuan, eta baita neure mihasmena eta errespetua ere adierazi nahi niolako sarritan literatur sistemak txikitzat hartzen duen horren azpian datzan handitasunari.

LIBURUTEGIAK GONBIDATZEN ZAITU

Gaur da EGUNA
Zatoz, emadazu eskutxo hori.
Nahi baduzu, zurekin ekar dezakezu
zure sonbreiru beltza,
zure bufanda urdina,
edo zure pailazo-sudur gorria.
Itzal ezazu mugikorra.
Bila ezazu zure *abriteportas* berezia,
bestela, ez da atea irekiko.
Egin ezazu zurrut isiltasunaren edalontzitik.
Jarri edo kendu betaurrekoak.
Jarri edo kendu umorea.
Ken ezazu gainetik egun aspergarrietako hautsa,
eta etor zaitez nirekin.
Atsedena hartu behar duzu hainbeste hotsetatik.
Barnekoetatik eta kanpokoetatik.
Izan daitezkeenak eta izan ezin daitezkeenak dastatzeko
beharra duzu.
Begiratzea, zeure baitatik irteteko.
Entzutea, zeure baitara sartzeko.

Ausartzea, irribarre egitea, txunditurik gelditzea,
beldurtzea, ondoren lasaitzeko,
bidean galtzea zeure burua aurkitzeko,
sentitzen duzunari hitzak jartzeko,
paperezko pistetan irristan ibiltzeko,
apaletan barrena *surfean* aritzeko,
datu-pantailetan usnan ibiltzeko...
Irudien eta hitzen musuak behar dituzu.
Dibertitu egingo zaituzte, besteak diberti ditzazun.
Kontsolatu egingo zaituzte, besteak kontsola ditzazun.
Liluratu egingo zaituzte, besteak lilura ditzazun.
Nora goazen?
Ez al duzu asmatu?
LIBURUTEGIRA.
Noski!

Liburutegiak gonbidatzen zaitu. Donostiako Liburutegirako idatzitako testua 2005ean.
Egun, Alderdi Ederreko liburutegian panel gisa zintzilikatua.



IRAKURKETA LITERARIOAZ: Zergatik zen kristalezkoa Mari Errauskinen zapatatxoa

Irakurketa

Gizartean ospe ona gorde duen zeregina izanik ere, horren gain-behera era hipokrita eta alarmista batez adierazi izan da bazuetan, baita erruduntasun zantzu batez ere: “Gure seme-alabek ez dute irakurtzen, zer egin dezakegu?”, galdetzen diote gurasoek beren buruari telebista ikusten duten bitartean.

Inkestek agerian utzi dute gero eta gutxiago irakurtzen dela. Gero eta okerrago irakurtzen dela esango nuke nik, besteak beste, presa handiarekin ibiltzen garelako, erlojua eskuan daramagula, *Alizia Lurrealde Miresgarrian* ipuineko erbi zuria bezala.

Sarritan, elkarrizketetan ohiko galderak egiten dizkidanenean, hurrek irakurtzea komenigarria den, zergatik, noiz, nola, zer... Nik ez dut errezerarik, ezta jarraibide-libururik ere, are gutxiago lau eslogan, estuasunetik irreteteko. Nik, nire adinean, atsegin dut erantzutea, apaltasun guztiarekin, irakurtzea, literatur fikzioa, onerako izan dudala oso. Eta gomendatu egiten dudala, besteak beste, gizakiaren behar bat iruditzen zaidalako, amets, barre edo jolas egitea bezala. Niretzat, gozamenerako, kontsolamendurako, laguntasunerako bide izan delako, baita neure burua ezagutzeko ere.

Aitor dut espiritu proselitista urria dudala, nire erantzunak baduela kalitate/prezio egokia duen jatetxe bat edo bizkarreko kontraktura arindu

digun masajista bat gomendatzen ari denaren kutsua. Eta horrela ateratzen zait, ez dudalako irakurketa zerbait sakratu bihurtu nahi, ezta inor behartu edo aipatuko dudan gozamina sentitu ez dutenak eta sentitzeko asmorik ez dutenak exortzizatu nahi ere. Baina, barru-barruan, bai uste dut gozamen horretan partaide, behin sikiera, izan ez direnak garrantzi handiko zerbait ari direla galtzen bizitzan.

Tira, ziur aski, horixe bera pentsatuko dute nitaz parapentean jauzi egiten dutenek.

Askotan galdetu didate zergatik hartu diodan gustua idazteari. Sekula ez dit inork galdetu zergatik hartu nion irakurtzeari. Gauza jakina delakoan edo. Beraz, has gaitezke geure buruari galdetzen:

–lehenik, zergatik irakurri izan ditugun eta oraindik ere irakurtzen ditugun batzuek sekula gertatu ez diren historiak, gezurrak, asmakizunak, gertaera irrealak, alegiazkoak, sarritan ezinezkoak eta, hala ere, garen modukoak egin gaituztenak;

–eta bigarrenik, zergatik, gainera, ausartzen garen besteei literatura irakurtzeko gomendioa egiten, besteak beste, emozioak sentitzeko modu bat delakoan, beste era batera bizitzeko, hobeto bizitzeko modu bat delakoan.

Egia esan, begi-bistakoa da badela jende aparta, azkarra eta nahiko zorionsua, batere irakurtzen ez duena edo oso gutxi irakurtzen duena. Alegia, ulertzen dute mundua, edo beren mundua bederen, eta hori ez da gutxi. Bada, baita ere, asko irakurri arren, ergel hutsa den jendea. Begi-bistakoa da, halaber, irakurketa barne-barneko *ni*arekin zerikusia duen zerbait dela sentitzen dugunean, plazera hartzen dugula edo, gutxienez, berriz sentitu nahi dugun barneko atsegin edo erosotasuna. Plazer hori txikitan, gaztetxotan, grina bihurtzen bada, irakurtzea gure bizitzako gorabehera ugarien jarduera paralelo bihurtzen da: beti liburu bat poltsan, hainbat liburu bidaiari bakoitzeko maletan, gehiegi gau-mahaitxoaren gainean pilatuta eta liburutegia, gure biografia, gure literatura-gustuen aldaketak markatzen dituen liburutegia, argazki-album batek bizitza disekatuaren zatiak partzialki jasotzen dituen moduan.

Literatur esperientzia, ukituta uzten gaituen irakurketa grinatsu hori, ez da nahi dugun bestetan, irakurtzen dugun guztietan, gertatzen. Liburu bat batzuei bai eta besteei ez gustatzeko arrazoiak, askotarikoak eta diferenteak dira bakoitzarentzat. Ez da guk eragin, iragarri edo programa dezakegun esperientzia. Horretan, maitasunaren antza du, hobeto esanda, maitemina. Gehienez ere, ahaleginak egin ditzakegu zirkunstantzia egokiak sor daitezen, hainbat baldintza batera bil daitezen: testu egoki bat, une aproposa, antzeko sentikortasuna... Eta itxaron.

Norbaitek esan dezake, edo pentsatu bederen, liburuen bitartez bizitzea alferrikakoa dela, faltsua, are arriskutsua ere bai. Eta, bestela, galde diezaiotela On Kixoteri, edo madame Bovary-ri. “Bizitzea” hitzaren esanahia ondo baino hobeto ezagutuko balute bezala hitz egiten dute gainera, erredukzionismo eroso eta harrigarri batez. Gehien jota –pentsatzen dute–, irakurtzea denbora pasa da, aireportuan, kallistarenean, ospitalean... denbora emateko modu bat edo, pertsona publikoa izanez gero, “Zer ari zara irakurtzen?” galderari erantzuteko balio duen zerbait.

Iruñako alkate hari “Udan zer irakurtzen duzu?” galdetu ziotenean, berak udan ez zuela aspertzeko astirik edo antzeko zerbait erantzun zuen, eta izugarritzko zalaparta sortu zuen. Niri beti iruditu zait ohiz kanpoko zintzotasuna, sintzerotasuna. Kirtena izan zen, baina zintzoa. Irakurtzea aspertzearekin lotu zuen, denbora galtzearekin, hutsaltasunarekin.

Egia esan, teoriako milaka orrialde bete dituen galdera bat aieratu zuen:

Zertarako balio du literaturak?

Gogoratzen ez dudan norbaitek erantzun zuen: hobeak izateko. Ondo jotzen du belarrira, baina gehiago iruditzen zait eslogan bat benetako erantzun bat baino. Artean bezala, literatur fikzioan ere, beti galdetu behar da zergatik, oro har, ez gauden konforme gure bizitza errealekin; zergatik eskatzen diogun literaturari, oraindik ere, gutaz hitz egingo digun zerbait; zergatik daukagun guri eta inguratzen gaituen munduari buruzko jakin-mina, ezagutzeko grina.

Ikasteko edo norberaren jakinduria areagotzeko irakur daiteke, eta hori hobeto ikusita dago. Ihesbide gisa irakur daiteke, aisia edo denborapasa modura, eta hori ere, garai hauetan, ulertu, eta egin egiten da (edo zer telebista katetan Gran Hermano saioko partaideen gorabeherak ikus-tea baino hobea da).

Era guztietara, irakurtzea ondo dago. Hori da, behintzat, nire iri-tzia.

Baina, sarritan, irakurketari gehiago eskatzen diogu. Batez ere, irakurgaia literatura bada. Orduan, gurekin, gure irakurle-subjektibotasunarekin, zerikusia duen jarduera bat datorkigu burura, dakigunari ez, baina garenari lotua. Osatu, edo deformatu, edo eraldatuko gaituen zerbait aurkitu nahi dugu. Hunkituko gaituen zerbait gutxienez. Ezaupideak lortzeko irakurtzen badugu, irakurri ondoren lehendik ez genekien zerbait jakingo dugu, ez genuen zerbait izango dugu, baina gu lehengoak izango gara. Ez gaitu ezerk aldatuko.

Egia esan, garai hauetan, era guztietako informazioa dugu eskura. Sekula ez ditugu liburuak eta artea hain gertu eduki, baina, agian, gutxi sentitzen dugu, nekez hunkitzen gara, irentsi egiten dugu mastekatu baino. Walter Benjaminek zioen bezala, gure munduaren ezaugarri da estimulu ugari egotea, baina esperientzia urri. Alegia, irakurtzen dugu, baina ezerk gutxik emozionatzen gaitu. Gauza gutxik hunkitzen, astintzen, eraldatzen gaituzte; eragiten digute zirrarak.

Eta Mari Errauskinen zapatatxoa?

Zapatatxo berezi bat, Mari Errauskinena, inprentako akats baten ondorioz, larruzko izatetik kristalezko izatera pasatu zena. Sekula zuzendu gabeko akatsa; izan ere, ez gara leloak, eta kristalezko zapatatxo bat opari ederra da gure irudimententzat. Ezinezko munduak dakartzkigu burura, baita izan zitekeen baina izan ez den guztiaren desira.

Charles Perraultez ari naiz, XVII. mendeko akademiko eta Errege Louis XIV.aren gortesauaz bere garaiko ahozko literaturako hamaika ipuin jaso eta lehenbizikoz paperean jarri zituen hartaz. Ipuinok –Marc

Sorianok horrela definitu zituen— gizadi osoaren literatura dira: *Txanogorritxu*, *Loti Ederra*, *Barbantxo* eta, nola ez, *Mari Errauskin*. Mari Errauskinek sutegitik alde eginda, jai zoragarri batera joan zen eta, amaitutakoan, bere patu umilera itzuli zen zapatila bat han utzita. Zapatila *vairezkoa* zen frantsesez, larru mota batekoa, baina inprimategitik pasatzerakoan, hitz hori *verre* hitzarekin nahastu zen, kristalarekin, eta liluratuta gelditu ginen denok betiko, irudi iradokitzaile, irreal, fantastiko hura (beraz, literarioa, poetikoa) zuzentzeko ezgauza.

Jarrai dezagun une batez inprimategiko akats baten ondorioz kristalezko bihurtu zen larruzko zapatilari tiraka. Plantea dezagun beste era batera:

—Zer balio du bestek idatzitakoa, asmatutakoa, irakurtzeak?

Edo tira dezagun gehiago sokatik:

—Zer balio du bestek esandakoa entzuteak?

Itzul gaitezen hitzaldi honen hasierara: zergatik dugu gustuko errealitatean sekula gertatu ez diren narrazioak irakurtzeak?

Zentzugabekeria da ia, edo zerbait misterioitsua gutxienez. Zer dela eta bereganatzen dute hain gartsuki gure arreta, sekula gertatu ez diren historia batzuek? Zergatik partekatzen ditugu, zeharka bederen, bizitzan esperimintatu nahi ez ditugun sentimenduak? Nolatan nekatzen dugu hainbeste burua, izan ezin diren gauzak —kristalezko zapatatxoak, kasu— irudikatzen?

Bizirik irautea ez dugu aski, gehiago nahi dugu. Zer? A!, ez dakit, baina gehiago. Nahiago dugu Mari Errauskinen zapatatxoa kristalezkoa izatea, zerbait ezinezkoa, fantastikoa, baina liluratzeraino ederra, iradokitzailea, bera bakarrik gure fikzio-nahia bideratzeko gauza dena. Hau da, nahiago dugu gauzak diren bezala direla, bizitza den modukoa dela pentsatzeari uko egitea. Nahiz eta pragmatiko zorionsuek zera dioten: zergatik kristalezko zapatatxo bat, benetan larruzkoa baldin bazen, arrunta eta normala, guztiz sinesgarria?

Ba bai, nik ere nahiago dut Mari Errauskinen zapatatxoa kristalezkoa izatea, mendeetan zehar beste haur batzuek nahiago izan duten bezala. Gaizki janda, zarpailtsu, babesik gabe, suaren ondoan jarrita istorioak entzuten, haur zein helduek bazekiten, jakin, ipuin haietan eta beste

batzuetan kontatzen zena hitzak baino ez zirela, errealitatean sekula gertatu gabeko kontuak, asmazioak, gezurra, gezur asko... zeren, beharbada, gizatiarrena amestea da, ezinezkoa nahi izatea, izan ez dena, baina, agian, izan litekeena nolabait bizitzea.

Erantzun bat, gaiaren teorialari askok eman dutena eta guk badakiguna, zera da: horrelako irakurgaiekin, garena baino gehiago izatea bilatzen dugula. Beste begi batzuekin ikusi, beste irudimen batzuekin irudikatu, beste bihotz batzuekin sentitu. C.S. Lewis-en hitzetan, leihoak edo atek nahi ditugu. Eta oso ondo dago atek aipatzea, izan ere, hurrek, adibidez, ondo dakite ipuin bat kontatzen hasten zaienean, ate batetik abiatzen direla espazio erreal eta zehaztetik kanpo, eta han, askotariko emozioak biziko dituztela: beldurra, poza, askapena, haserrea...

Ate horiek badituzte sartzeko esaldi magikoak: “Behin batean”, “Animaliak eta landareak hitz egiten zuten garaian”... eta kontatutako edo irakurritako ipuina, tunel liluragarri eta limurtzaile hori uzteko ere, badaude horrelako hitzak: “Eta hala bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Gasteizeko plazan”... Haurrak badaki kontatzen ari zaiona ez dela egia, baina izan zedin gustatuko litzaioke, eta ildo horretatik, gogora dezagun Bruno Bettelheim-ek idatzitakoa: “Haurarentzat, desira duena baino gauza egiazkoagorik ez dago”. Aspalditik dakigu hurrek fikzioa behar dutela errealitateaz jabetzeko. Gainera, kontatzen ditugun, edo hurrek irakurtzen dituzten ipuin horiek, besteak beste, narrazio forma ematen diote beren bizitzari.

Gai honi arreta berezia jarri nahi diot, izan ere, literaturak balio hezitzaile handia izan du batzuen izaera eratzeko, beren bizitza narrazio gisa ulertzeko orduan, eta horren arrazoietakoa bat, nik uste, aipatu dudana kontu horretan datza. Zenbat aldiz entzun behar izan dugu: “Ai, nire bizitza kontatuko banizu, nobela ederra idatziko zenuke!”.

Uste dut ezin dugula onartu gure bizitza gertaeren hurrenkera hutsa izatea, hurrenkera zatitua, kaotikoa; zentzua eman nahi diogu. Gauza jakina da literaturarako zaletasunak baduela zerikusirik gure bizitza narrazio gisa ulertzearekin, edo narrazioari egitura ebasten diogula kaosa baino are kaotikoagoa dena antolatzeke: bizitza bera.



Beraz, gure bizitza kontatzen dugunean, edo besteenak entzuten, narrazioak entzuten ditugu, gureak eta besteenak.

Garenaren zentzua narrazio gisa eraikita egonik, ukaezina da erai-
kitze eta eraldatze prozesuan funtsezkoak direla fikzioa, literatur narra-
tiboia, entzuten eta irakurtzen ditugun istorio horiek guztiak. Izan ere, ze-
regin hori ez da literaturarena bakarrik, baina zalantzarik gabe, lengoiak
baditu horretarako hainbat dohain: oihartzunarena, errepikapenarena,
hausnarketa patxadatsuarena, zenbait esaldik, hitz batzuek, hausnarke-
taren batek gudan eragiten duten barne-elkarrizketa pertsonal eta beste-
renezina... Elkarrizketa intimoa, erantzuteko estimulua, dibagatzeko
gonbita, besteek kontatzen dizkiguten esperientziekin alderatzeko deia.

Azkenean, hitzaldi honetan esan nahi nizuena laburbilduz: Beste
batzuek nik baino hobeto esan duten legez, irakurtzea, besteak beste, la-
guntza bat dateke zer garen jakiteko eta garena berresteko. Norberaren
esperientzia besteenarekin alderatzeko aukera bat, besteekin batera hun-
kitzeko, taldeko oroitzapen eta esperientzia komunak elkarrekin parte-
katzeko.

Eta amesteko...: Agian, beharbada, zergatik ez, kristalezko zapa-
tatxo hura gurea zela, ibilera batean, manifestazio batean galdu genuen
hura, duela urte asko... asko eta asko. Animaliek eta landareek hitz egi-
ten zuten garaian, agian.

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Euskararen Egunaren barruan, hitzaldia.
2003ko Abenduak 3.